

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

14/2019 Foru Araua, urriaren 1ekoa, Arabako Batzar Nagusien 2019rako aurrekontuen abenduaren 11ko 23/2018 Foru Araua aldatzekoa

Arabako Batzar Nagusiek, Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2019ko urriaren 1ean egindako bilkuran, araugintza-ahalmen osoz, ondoko foru araua onetsi dute:

14/2019 Foru Araua, urriaren 1ekoa, Arabako Batzar Nagusien 2019rako aurrekontuen abenduaren 11ko 23/2018 Foru Araua aldatzekoa

1. artikulua

Aldatu da 23/2018 Foru Arauaren hirugarren artikulua, honako modu honetan:

HIRUGARREN ARTIKULUA

Batzarkide-taldeentzako, taldekideen kopuruaren arabera, eta aholkularitza teknikoarentzako kopuruaren zenbatekoak honakoak izango dira:

Talde bakoitzarentzako kopuru finkoa: 2760,14 euro hileko.

Taldekide kopuruaren arabera kopurua 1669,84 euro hileko eserlekuko.

Taldeentzako laguntza teknikoaren kontzeptu hauek ezarri dira:

A) Mahaikideentzako laguntza teknikoak, 79 891,98 euro urteko kopuruagatik. Mahaian ordezkariaren bat duten batzarkide-taldeak, lehendakariorde edo idazkari gisa, diru-kopuru hori jasoko dute hauetariko bakoitzarengatik.

B1) Batzar Nagusietan lehentasunez jarduten duten batzarkideentzako laguntza teknikoak eta batzarkide-taldeentzako laguntza teknikoak. Urteko 55 191,44 euroko ordainsari bat ezarri da, honako irizpide hauekin:

- Talde Mistoa bat edo bi kide izanez gero: Ordainsari bat.
- Hiru kidetik hamar kidera bitarteko taldeak: kideen kopurua 0,75gatik biderkatzearen emaitzaren beste ordainsari; biribilduko da betiere ordainsari erdiagatik.
- Hamar kidetik gorako taldeak: aurrekoaz gain, ordainsari bat gehiago bi eserlekuko, hamarretik aurrera.

B2) Batzarkide-taldeak bozeramaile izendatzen duen batzarkideak Batzar Nagusietan soilik egin ahal izango du lan; kasu horretan, aurreko ataletako ordainsarietatik bat, handituko da harik eta A) atalean adierazitako kopurura heldu arte.

Talde batek ez du jasoko duen batzarkideen kopurua baino ordainsari tekniko gehiago (A, B1, B2). Halaber, bozeramaileak jarduera bakar hori izan behar duela aukeratzen duen taldearen kasuan, B1) ataleko kopuru osoa edo eserlekuaren eta taldekideen kopuruaren arabera kopuruak murriztu egingo dira lehentasunezko dedikazioaren eta dedikazio bakarraren arteko aldea osatu arte.

Funts hauek hileroko ordainduko dira, batzarkide taldeen beste ordainsariekin batera.

Batzarkide-taldeek nahi duten bezala erabiliko dituzte kopuruok beraien aholkularitza eta laguntza teknikorako programetan; A) eta B1) ataletan adierazitakoak, banaka hartuta, batzarkidea jakin batzuei edo Mahaiko ordezkariari esleitu ahal diote, eta B1) atalean aipatutakoetako bat, aholkulari moduan askatasunez izendatu duten pertsona bati esleitu ahal diote.

Edozein modutan, Ganberak hauek zuzenean ordainduko ditu goi kargudunen edo aholkularien ordainsari gisa, eta Arabako Batzar Nagusien aurrekontuen kontura izango dira kostu osagarriak eta dagokien legezko kostuak, aukeratuaren egoera pertsonalaren arabera.

Mahaia arduratuko da Ganberaren bileretan bertaratu eta joan-etorria egiteagatik hartu-kizunak egokitzeaz, ordainsari hauek jasotzeko aukeratutako batzarkideei dagozkienak, hauen zenbatekoak eta beraien Taldeak egotzi dien jarduera aintzat hartuz.

2. artikulua

Aldatu da 23/2018 Foru Arauaren bosgarren artikulua, honako modu honetan:

BOSGARREN ARTIKULUA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 96. artikuluan aipatzen diren aldi baterako lanpostuak honakoak dira:

- Batzarkide-taldeei atxikitutako administrari laguntzaile lanpostuak (bat batzarkide-taldeko).
- Batzarkide-talde bakoitzeko aholkulari lanpostu bat edo bi, izendatuta izango direnean.
- Lehendakaritzaren idazkaritzan lanpostu bat.
- Batzar Nagusietako protokolo eta komunikazio lanpostu bat, Lehendakaritzari atxikia.

Haien ordainsariak ezarriko dira Mahaiak onesten duen lanpostuen-zerrendan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Finantzazioa

Foru-arau honek berekin dakarren gastu-handitzea behar beste finantzatuko da 555.50000 Kreditu globala eta bestelako ezustekoak partidatik 444.49000 taldeen ordainsariak eta eserlekuak partidara transferentzia eginez, eta, hala badagokio, I. Kapitulura.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Indarrean sartzea

Foru-arau hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta lehen artikuluan ezartzen diren batzarkide-taldeentzako ordainsarien ordainketek ondorioak izango dituzte aurtengo irailaren 1etik aurrera; diru-ekarpenari eragingo dio soilik, ez aholkulariak edo laguntza teknikoa izendatzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA